

Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarra Espainiako txapeldun

11. orrialdea

Irati Astondoa txapeldun

Irati Astondoa zeanuriztarrek irabazi eban Baliarrainen (Gipuzkoa) bagilaren 18an jokaturako Euskal Herriko Segatxo Txapelketa 23 urte artekoen kategorian. Txapelketa honek Esloveniako jokaturako dan Europako Segatxo Txapelketarako sailkatzeko balio dau. Gizonezkoetan bosgarren izan zan Pabi Astondoa eta hau be sailkatu da Europarako. 10. orrialdea



Jingo de Lunch talde alemaniarra Zeberion hilaren 15ean

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

146

2011ko garagarriaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Hile osoa jantzan

Hile honetan herriko jaiak ospatuko dabez Lemoan eta hau hilaren amaieran izango da.

Baina esan lei santoral guztia ospatzen dala hilean eta Arratian dagozan auzune eta ermita kopurua kontuan hartuta ez da faltako non musikea entzun edo jantzan egin.

Hilaren hasieran oraindino sandedroak ospatuten egongo dira Diman, Arantzazun eta Zeanuriko Undurragan. Jai honeen ostean, Santo Tomas eguna hilaren 3an da eta Areatzako Santo Tomas ermitan ospatuten da. Gero, Sankristobalak. San Kristobal eguna hilaren 10ean da eta Igorreko izen bereko auzunean ospatuten dira jaiak.

Gurean ospatuten diran hurrengo jaiak Santamañeak dira. Santa

Marina hilaren 18an da eta Arteako Santamañen eta Dimako Bargondian izango da jai. Hilaren 18an be San Segismundo da, Zeberioko Upon ospatuten dana.

Madalenak datoz gero, hilaren 22an, Ubiden eta Dimako Laminadaon ospatuten dira jai honeek. Ostean, santiagoak, hilak 25, Lemoako Arrañon, Arteako Santiagon eta Dimako Santiagon.

Garagarriaren azken eguna San Inazio eguna da. Lemoako herriko jaiak izateaz gain, Zeberioko Undurragan eta Dimako Arostegetan be ospatuko dabe eguna.

5. eta 6. orrialdeak



Lemoako igazko jaiak.

Argazkia: Atxubieta Aldizkaria.

ARRATIA

Txangoak eta tailerrak udalekuetan

Eskoletako oporrak hartu eta segiduan euki dabe Artea, Igorre, Lemoa eta Zeberioko umeak udalekuetan parte hartzeako aukerea. Herri honeetan, bagilaren 27an hasi ziran eta udalekuok. Lehenago edo beranduego herri gehienetan eskeintzen deutsee udalak udan ekintzak egiteko aukerea herriko umei. Herririk handienetan udalekuak antolatuten ditue, data desbardineta edade desbardineta umei zuzenduta. Parte hartzean daben umeak txangoak, tailerrak eta kirola egiten dabe begiraleen zaintzapean, udan beste modu baten ikasten jarraituteko.

Ludotekak eta liburutegiak be egokitzen dira urte sasoi honetara, zerbitzua ugerlekuetan eskeiniz edo ordutegia aldatuz.

6. orrialdea

IGORRE

Gidabaimena euskeraz aterateak saria dauka

Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak, herriko autoeskolakaz alkarlanean, gidabaimena euskeraz aterateko kanpaina ipini dau martxan. Holan, azterketa teorikoa euskeraz egiten daben guztiak biaje baten zozketan parte hartuko dabe. 7. orrialdea

ARRATIA

BEGITUREN ARGAZKI LEHIAKETEA MARTXAN

Udan gagoz eta aisialdia, oporrak, biajeak... horretarako sasoi heldu da. BEGITUko irakurleok zuon oporrak besteokaz konpartidutea gurako geunke eta horregaitik argazki lehiaketa antolatu dogu aurtengoan be. Saria Nafarroako landetxe baten astegoen bat pasetea izango da, irabazleak oporrak eta bizipen bereziak luzatu ahal izateko. 4. orrialdea

Borroka libreko egundoko ikuskizuna !!

QTDkoro? vs Krisia

Igorren, Beheko plazan, anbulatorio ondoan
2011ko UZTAILA
Sabino Arana Kalea, 17-IGORRE

Tlf. 94 631 95 98 - Mug. 634 491 728
www.qtdkoro.com - qtdkoro@qtdkoro.com

borroka nagusia
Uztailean egin K.O. krisiari

ROUND 1: Uztailean zehar behar duzun erreforma kontratatu edo erosketa egin QTDkoron?

ROUND 2: Aukeratu urte osoan zehar noiz egin nahi duzun erreforma

ROUND 3: Materialetan BEZaren %18ko beharapena izango duzu eta %10eko eskulanean

K.O.: Etxe berriaz disfrutatuko duzu preziorik onenean

etorri borrokara eta eskatu aurrekontua ezelango konpromiso barik !!

ZEURE BERBEA

Artean ez da egon akordiorik

Arteko Aldatuz Herri Plataforma orain dala 4 urte sortu zan EAJren kudeaketea eta udal politikea egiteko moduari bueltea emoteko.

Aldatuzek 2 zinegotzi lortu zituanez aurreko hauteskundeetan (137 boto) eta beste bi azken honeetan (154 boto). Kontuan hartuta Bilduk be zinegotzi bi atara dituala (156 boto), EAJri alkatezteza kentzeako aukerea izan dogu baina zoritxarrez ez gara akordio batera heldu.

Akordio ezaren arrazoi nagusia Aldatuzek Bilduren zerrendaburuaren daukan konfiantza faltea izan da. Konfiantza falta hori aurreko legealdian persona honek izan dauan jarrera eta EAJgaz batera egin dauan kudeaketa oinarritzen da. Urtenbide bat bilatu guran, Aldatuz prest agertu da Bilduko beste zinegotziaren alde bozka emoteko alkatezarako eta indar biren artean udal gobernua osotuteko.

Bilduk ez dau proposamen hau onartu ezta Aldatuzen zerrendaburuaren aldeko apusturik egin. Dana dala, Aldatuz prest dago oposizio bateratu bat egiteko, konfiantza berreskuratzeko eta herriaren onerako diran proposamenak aurrera aterateko.


ALDATUZ PLATAFORMA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGIRUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Zapea



Ule luze moltsoa da berez (euskera batuan, txima da). Non erabili edo erabilten da? Antxinako Arratiako gizonezkoak eukiezan ulezarrak esateko; behor eta zaldien ule luzeai deituteko; eta argazkian ikusten dan lez, buztarrietan idiai ipinten jakiezan apaingarri eta dindirriak be zapak dira.

Igorreko jaiak

Ez gara idatziak egin zaleak. Ez da gure egitekoa. Gurea jaiak antolatzea da, herriari bizia emotea. Baina egin beharra ate joka dagoanean, ez dago beste aukerarik. Oingoan bezala.

Igorreko jaietan, bagilaren 11n, erromeriaren aurretik hiru musika talde izan ziran kontzertua emotekoak: Feos pero majos, Siroka eta El último ke zierre. Bertaratu ziranak baina, azkenengo kontzertua baino ez eben ikusterik izan. Zergaitia azaltzeak luze joko leuke, bakotzak bere burua zurituko leukealako. Hau idatzia ez dogu horretarako erabili gura, guk geuk akatsak egin genduzalako. Akatsak egin doguz, akatsak egiten doguz eta akatsak egiten jarraituko dogu. Urtero. Urtailetik bagilera. Azken hamaika urte honeetan legez. Idatzi hau sei hilean zehar zintotasunez eta era parte-hartzailean lanean ibili diran herritarri omenaldi txiki bat egiteko, ezjakintasunetik datozen kritikak jasan dabezan jai-batzordekideai besarkada bat luzatuteko eta, zelan ez, 11ko gau horretan, tokatzen jakiena baino bi ordu gehiago joz, txosnagunea jantzan eta jaietan parte-hartzean ipini eban Garraxi erromeriari eskerrak emoteko da. Eskerrik asko, benetan. Ez dogu gehiago idatziko. Gurea jaiak antolatzea da.

SAN ANTONIOETAKO JAI BATZORDEA

Zorionak Areatza!

Orain dala 4 urte hasi ginan Areatzan Euskal Jaia antolatzen, gure herriari lotutako historia eta ohiturak ardatz nagusitzat hartuz. Aurten bagilaren 25ean ospatu dogu eta udako solstizioa, akelarrea, sendabedarrak, eta abar izan dira gai nagusia.

Euskal Jaian, urtero aukeratuten dan gaiaren inguruan lan handia egiten da alde aurretik, izan be jai giroan ondo pasetako aukeraz gain, ekimen honegaz gure historian eta ohituretan sakontzea dala helburua alde batetik eta herriko adin guztietako billaroztarren parte hartzea gauzatzea bestetik.

Horregaitik, antolaketa batzordekoa nazan aldetik, aukera hau aprobetxau gura dot, neurri baten edo bestean jai berezi hau posible egiten daben guztiai eskerrak emoteko:

Gorka Menendezeri, Gorbeialdeko sendabedarren ganean erakutsi deuskunagaitik.

San Juan sua antolatu eben Zubizarrauko auzotarri.

Toti Martinez de Lezeari, eskeini euskun berbalde bikainagaitik.

Arkaitz Estiballes bertsolariari eta Areatzako jantza taldeari.

Azokan postua ipini ebenai, batez be billaroztarri.

Artziniegako Sanca Elkarteari, Euskal Herriko Erdi Aroko buruko eta jantziai buruz egindako ikerketa lanagaitik eta modelo bezala desfilau eben herritarri.

Herriko gazteai *Inkizino*a antzetzten egin eben selulako lanagaitik! Bazkaria zerbitzen egon zan taldeari.

Berakatz zopea, taloak... egiten ibili ziranai.

Azpiegitura lan handia egin eben udaleko beharginai.

Orain, hurrengoan pentsetan hastea baino ez jaku geratzen. ZORIONAK AREATZA!

SARA GUTIERREZ
AREATZAKO EUSKAL JAIA
ANTOLAKETA BATZORDEKO KIDEA

ERETXIA



URTZI BARRENETXEA
Soziologoa

Denpora librea?

Garagarila hastekotan dan honetan inguruko lagun batzuk oporrak hartzean hasi dirala eta, fenomeno kuriosoa igartzen dot eurengan. Konparazio legez, kotxean zoazela, bosgarren martxatik bigarrenera segiduan pasakeran sortzean dan astrapalea gogora ekarten deustan portaerea izaten da. Halan ibiltzen dira, batetik bestera, galapan oporretako lehenengo egun horreetan: urliaz konpromisoa, aspaldi "erosi beharrekoak" erosi, ikastaroan izena emon...

Portaerearen zergaitiagaitik galdetu ezketino, erantzuten deustue "denporea galtzean" sensazioari aurre egiten dabizela. Batzuentzat, lan edo ikasketa egunetako eritmoari ohituta, egin behar konkretu bako egunak eukitea denporea galdutea izaten da, antza.

Denporea galtzean kontu hori entzuten dodanetan, pentsetan hasten naz denpora librea berbea ondo erabilten ete dogun; benetan librea ete dan denpora hori.

Gizarte zientzietan ez dau denpora librearen definizio unibersalik; baina, arloko teoriko gehientzat, denpora libre da lanorduetatik kanpoko guztia. Horreen barruan daukaguz lo egiteko orduak, jatekoak, etxeko lanak, joan-etorrietarakoak, eta aisialdi edo asti orduak. Astia izango litzateke, denpora librearen barruan, guk gura doguna egin ahal izateko geratzen jakun denporea.

Baina benetan gura doguna egiten dogu astia daukagunean? Emoten dau gehiago dala denpora librea zeozertatik (lanetik) eukitea;

denpora libre a zeozertarako (gura dodanerako) eukitea baino. Esan lei denpora horren alde kronologikoa bakarrik hartzean dogula kontuan (X ordu beharrean, X ordu ez-beharrean), bakotxarentzat euki leikean esangurea alde batera itxita. Horregaz esan gura dot oinarriko beharrianak (biofisiologikoa: atsedeen fisiko eta psikologikoa...) ez diran bestelakoak asetzeko denporeari ez deustagula behar dan inportantzia emoten.

Kontua da garrantzitsua ei dala derrigorrezko eginbeharrak sortuten daben desorekak berreskuratzeko epea hartzea, norberan gatazka indibidual zein talde-maillakoak konponduteko; eta zeregin hori bakotzak bere modura egin behar dau, ez bide estereotipauak hartuta. Horretarako, garrantzitsua da berezko sormena bultzatutea: gauzak egiteko daukagun gaitasun propioari tartea emotea.

Horratio, esango neuke, gaur egun, lanorduen eritmo eta ezauzgarrietan oinarritutako astia daukagula batez be. Lana erreferentzia daukan errutinazko eskemearen arabera antolatzen dogu geuretzako denpora libre; ez dau izaten berezko zentzu bat, ez dauka helburu zehatzik, ez bada eguneroko lanetik "deskonektetea", egunerokoa ahaztutea.

Ez dogu geuretzako denporarik hartzean (edo galtzean). Ez dot hartzean nire arazoari aurre egiteko tarterik; niretzako denporan be ordutegi zorrotzak eta jarduera pautatuak betetzen dodaz. Holan, nire arazoak ez dira desagertuten, ezkutatu baino. Ganera, denpora libreko jarduera konpulsibo-pasiboak eta izakera indibidualistakoak izaten dira gero eta gehiagotan; ez deuste emoten bizi nazan komunidadean, taldean edo herrian jarduteko aukerarik.

Baina, akaso, ez dau merezidu holango gauzetan denporea galtzearik. Ez geunke aburridu behar holango gauzakaz, eta gitxiago oporretako denpora librean. Eta bardinean, txikitatik ohitutea izan lei onena: eskola osteko jarduera guztiai izaera formala emotea, eta udan be ekitaldi programatuetan murgildutea, ezin dogulako aburridu eta denporea galtzean ibili.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tomasa auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrean beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CORPORATION

LUMATUTEN



MAITE ARTABE

Eta zu nongoa zara, ba?

Aurten bete dira hogeita hiru urte Areatzan bizi nazala. Izan be Zornotzan bizi izan nebazanak beste. Tar-tean 5 urtean Gasteizen.

Zer pentsatua emon deusta horrek, zein herritakoa izan hori identitate-marka esanguratsua izaten da gure artean. Beak dino berari Arratian izena baino lehenago galdetzen deutsiela nongoa dan.

Ez daukat hori zergaitik azaldu beharrik, hain dago herria gure identitatean errotuta ze...

Horren harira gogoratu dot Donna Harawayren aipua: "Identidadetik afinidaderantza iges egin". Remedios Zafra hizlariak azaldu eban kontzeptu horren esangurea eta bere esanetan afinidatea klitxe eta estereotipoetatik askatzeko modua da; identiditatea dogmatikoa da eta afinidatea, ostera, antzekotasunetan oinarritutako identidatea

litzateke; kontua da, antza, guztiz ez finkatzea ezertan baizik eta graduzinoen arabera definidutea norbere burua.

Kontzeptua nire nongotartasunari apliketan ahalegindu naz.

Esaten dabe olgau dauan lekukoa dala bat, eta alde horretatik Zornotzakoa naz; baina orain badaikit zelako garrantzia daukan norbere familia sortzeako aukeraturako lekuak; beste aldetik, ez dot ahaztu gura Gasteizeko aldia izan zala guztiz independente izan nintzan sasoi bakarra.

Orduan, esango neuke % 45 nazala Zornotzakoa, % 45 Areatzakoa eta %10 Gasteizkoa. Hori erroldatzeari begiratuta ze batek daki zenbat denpora emon dodan Bilbon.

Batzuetan aukeratu beharrean edo ezarri nabe eta egia esanda ez dot inondik inora bizi izan nazen hiru leku horreen artean aukeratu gura ze hirurak aberastu nabe, modu erabakigarrian nire identidatea markauz.

Holantxe pasetan jakon Kimen Uriberi be Ondarroa eta Gasteizegaz: ...

Ez eman hautatzeko itsasoa eta lehorren artean. Badakit hari fin bat dela nire bizilekua, baina itsasoarekin bakarrik galduko nintzateke, lehorrekin ito.

Ez emon hautatzeko. Hemen gertatu naiz.

Olatu berde eta mendi urdinen artean.

ZERTZEAN



IGOR MENIKA



Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Udan argazki lehiaketeta BEGITUN

Uda ailegau da! Eta beragaz batera, aisialdia, oporrak, biajeak... Betiko moduan sasoi berezi hau BEGITUKO irakurleok beste irakurleakaz konpartidutea gurako geunke eta igazko moduan, argazki lehiaketeta antolatu dogu. Saria landetxe baten astegoien bat pasetea izango da, irabazleak oporrak eta bizipen bereziak luzatu ahal izateko.

Argazki lehiaketearen oinarriak:

1. Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.
2. Gaia: Argazkiak aurten egindako oporrakaz edota biajeakaz zerikusia izan behar dabe.
3. Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, nor, non eta noiz atera diran esan behar da. Gehienez hiru argazki bialdu ahal izango dira personako.
4. Nora bialdu: begitu@topagunea.com helbide elektronikora.
5. Aurkezteko epea: urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztuko eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, horrek ez dau esan gura argitaratutako horreek dirala irabazleak.
6. Epaimahaia: BEGITU Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
7. Epaia: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrean argitaratuko da aldizkari honetan.
8. Saria: Persona birentzako astegoien bat Nafarroako landetxe baten (gaua eta gosaria).
9. Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak oinari honeek onartzen dituela esan gura dau.

Animau! Zuen oporrak zein ederrak izan diran konpartiduteko eta sariren bat lortzeako aukerea izango dozue. Zuen argazkien zain gagoz! Ondo pasau oporretan!



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika Implantateak
Estetika

Marina Urigoitia Aidedkoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39

Nafarroa Zerkatu 110
R.P.S. 21/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA

Isaki
Martin Gorostiza

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28
e-mail: margoiza@euskonet.net

LEMOA

Kolorea, musikea eta usain eta zapore gozoak saninazioetan

Bost eguneko jai egitaraua prestatu dabe Lemoan San Inazio jaiak ospatuteko.



Baltsen jaitsiereak bere lekua dauka programazioan.

Erredakzioa

Mozorro lehiaketeak hilaren 29an eta baltsen jaitsiereak Ibaizabaletik hurrengo egunean kolorea ipiniko deutsee jaiari; musikea, kontzertuak, erromeriak, fanfariak, dj-a eta play back lehiaketak; usaina eta zaporea, txapelketa gastronomikoak eta herri bazkariak. Zentzumen guztiakaz gozatuteko pentsauta dagoz Lemoako San Inazioak.

GARAGARRILAK 27, eguazte-na

18:00etan, 15 urtetik beherakoen futbito txapelketako finala eskoletan eta eskupelota popularraren finala kiroldegian. Mozorro lehiaketan eta koadrilen "Umore rally-an" parte hartzeako izen emotea eskoletan.
19:00etan, 15 urtetik gorakoen futbito txapelketako 3. eta 4. postuak ebazteko partidua eskoletan.

20:00etan, 15 urtetik gorakoen futbito txapelketako finala eskoletan.

GARAGARRILAK 28, eguena

16:30etan, Eskupelota partidua Txutxin txapelketearen finala.
19:30etan, Herrikoentzako XII. Ugerketa txapelketea.
20:00etan, Padel txapelketearen finala.

GARAGARRILAK 29, barikua Mozorro eguna. Gaia: Hollywood

18:30etan, Jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan.
19:00etan, Txupina eta jaietako kartel lehiaketaren sari banaketea udaletxeko plazan. Miren Artetxek emongo deutso hasierea jaiari. Ostean kalejirea udaletxeko plazatik Elizondoraino SUGARRI fanfarreagaz.
Kalejirearen amaieran mozorro sarien banaketea Elizondon.
21:00etan, Koadrilen afaria kiroldegian.
22:00etan, Diskotekea eta euskokaraokea kiroldegian.
23:00etan, Kontzertua eta erromeria Elizondon. LARREGI eta AKERBELTZ.

GARAGARRILAK 30, zapatua

11:00etan, Puzgarriak eta umeentzako jolasak.
13:30etan, Paella, tortilla, gisadu eta makailao lehiaketetako lapikoen aurkezpena eskoletan. Ostean, herri bazkaria.
16:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako ume eta gazteentzako ekintzak eta Zaztarrak antolatutako tailerrak eta jolasak eskoletan.

16:30etan, Mus eta Briska txapelketak.

19:00etan, Baltsen jaitsiera Ibaizabaletik. Urteerea Tallereta zubian eta helmuga zubi barrian.

20:00etan, Arrantza eta ehiza alkarteak sardina jana eskeiniko dau Elizondon.

22:30etan, 12 urtetik beherakoen-tzako Play Back lehiaketea.

23:30etan, Kontzertua Elizondon SU TA GAR.

01:00etan, 12 urtetik gorakoen-tzako Play Back lehiaketea.

02:00etan, Erromeria Elizondon IZARGI taldeagaz.

05:00etan, Barauskarria Elizondon. Arratiako herrietatik pasauko diran autobusen urteerak 02:30etan eta 04:30etan izango dira Correos-en.

GARAGARRILAK 31, domekea Euskal Jaia San Inazio plazan

10:00etan, Diana txistulari eta dultzaineroakaz.

11:30etan, XIV. Artisautza azokea Atxeta taberna ondoko plazan.

12:30etan, Mezea San Inazio baselizan.

13:15etan, Durundi Barri jantza taldea eta Lemoako abesbatzaren ekitaldia San Inazio plazan.

17:00etan, Xaibor gazte diskotekea San Inazio plazan.

18:00etan, Ugel txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

18:30etan, Ugel txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

19:00etan, Koadrilen arteko "Umore rally-a". Jubiladuen tabernan. Erropa zaharra ekarri.

19:00etan, Bola txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

19:30etan, Bola txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

21:00etan, DJ-a herritik zehar ELEPUNTO.

23:00etan, GARSU erre eta su artifizialak Elizondon. Jaien amaiera.

ARRATIA

Udan hilean behin aterako da BEGITU

Erredakzioa

BEGITU hamabostekari danetik izan dan moduan, garagarriean, abuztuan eta urri lehenengoan zerbaki bakarria aterako da. Hau da, hilean behin bakarrik jasoko dozue aldizkari hau udako hila-beteetan. Garagarrikoa 1ean, abuztuko 2an eta urri lehenengoan zerbakia 1ean, kaleratuko dira.

Hamabostekaria izan arren, 21 zerbaki ateraten ditu urtean BEGITUk, aldizkari beharginak oporrak hartu ahal izan daien.

LEMOA

Gaztetxeoak ekintzak antolatuko ditue jaietan

Erredakzioa

Ohikoa dan legez, Lemoako Karbie Gaztetxeo Harriketarrak Gazte Asanbladak hainbat ekintza antolatuko ditu. Holan, egunean, hilak 28, LT (Lemoa Tudei) jai egingo dabe Karbie Gaztetxean eta domekan, San Inazio egunean, jaien amaiera ofizialaren ostean "jantzan egiteko kontzertuak" egongo dirala besteak beste emon deutso jakitera BEGITURI Harriketarrak Gazte Asanbladak.

Ondino egitaraua guztiz zarratu barik dago. Data hurreratu ahala, zehaztasunak <http://www.blogak.com/karbie> helbidean eta kalean karteletan ipiniko dabez.

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02. Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etxeko produktioak

- Txerriak
- Odoletzak
- Buzantzak
- Salbitzak
- Hamburgesak

• -

Arratiako produktioak

- Azemika okela
- Urtsiak
- Azemika arrautzak
- Txerriak
- Harriak
- Gorria fruta eta barazkiak

Herrikoak lehiatzen
Lehendakari Agirre 23
94 673 64 02 merka@lehiaketa.net

begitu
arratia ubide zeberio

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ZEKUTZE
JAIETAKA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutze@lehiaketa.net
Tel.: 94 631 52 83

ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ARANTZAZU ETA DIMA

Garagarrilean jarraituten dabe sanpedroak

San Pedro eguna bagilaren 29an da eta sanpedroak ospatuten daben herrietan jai egitarauak garagarriaren lehenengo egunetara luzatuten dira.

Erredakzioa

Hori gertatzen da Arantzazun, Diman eta Zeanuriko Undurragan. Hilaren 1, 2 eta 3an egindo diran ekitaldiak dakarguz hona.

ARANTZAZU**GARAGARRILAK 1, barikua**

10:00etan, Umeentzako jolasak eta tailerrak.

13:00etan, Bitsaren jaia sopesa bategaz.

17:00etan, Umeentzako antzerkia.

18:00etan, Txokolatea.

19:00etan, Disko Txiki: umeentzako jantzialdia.

20:45ean, Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Bilbao Musikako akordeoi taldeak kontzertua eskeiniko dabe Arantzazuko eleizan.

GARAGARRILAK 2, zapatua

11:00etan, Futbitoa.

12:30etan, Trikitilariak.

14:30etan, Paella eta Tortilla lehiaketak.

17:00etan, Frontenis eta esku pelota txapelketak.

20:00etan, Talo jana.

22:00etan, Erromeria Jokaldi taldeagaz.

GARAGARRILAK 3, domekea

16:00etan, Mus eta Briska txapelketak.

DIMA**GARAGARRILAK 1, barikua**

11:00etan, Umeentzako puzgari, ohe elastiko, zezen mekaniko eta jolasak.

17:30ean, Herriko sanpedroetako esku pelota txapelketako finalak.

19:00etan, Open 2011.

19:30etan, Kale animazioa eta poteoa.

23:00etan, Kontzertuak BIDEAN GALDUTA, LARREGI eta GORA HERRIA taldeakaz.

GARAGARRILAK 2, zapatua

11:00etan, Umeentzako jolasak.

14:00etan, Herri bazkaria.

17:30ean, Bits jaia.

18:30ean, Herri kirolak.

23:00etan, Kontzertuak NIK KHAOS, PORKO BRAVO, GOSE eta BIZARDUNAK taldeakaz.

00:00etan, Euskal preso eta errepresaliuuen aldeko ekitaldia plazan.

GARAGARRILAK 3, domekea

11:00etan, Umeentzako jolasak.

13:00etan, Jantza saioa GAZTE BARRI jantza taldearen eskutik.

19:30ean, Bertso saioa plazan: Beñat Gaztelumendi, Amaia Agirre, Xabier Silveira eta Jone Uria.

21:00etan, antzerkia *Mediopelo* antzezlan.

ARRATIA

Mezak, trikitilariak eta barauskarriak

Ondino leku batzuetan sanpedroak ospatuten dabizen bitartean, hilaren 3an, Areatzako Santo Tomas ermitan Santo Tomas eguna ospatuko dabe mezea eta askariagaz.

Erredakzioa

Garagarrilean gure auzune askotan santuen egunak ospatuten dira ermitetan mezakaz. Jai giroa trikitilariak ipinten dabe eta mokautxu bat jateko aukerea be egoten da ermiten inguruetan.

Santamañe, San Segismundo eta Madalenak

Hilaren 18an Santa Marina eta San Segismundo eguna da. Santa Marina edo santamañeak Artean eta Dimako Bargondian ospatuten dira. Artean, mezea egongo da eta gero barauskarria. Dimako Bargondian be 12:00etan izango da mezea ermitan eta ostean trikitilariak eta barauskarria egongo dira santamañeak ospatuteko. San Segismundo Zeberioiko Upon ospatuten da.

Hurrengo jaiak Madalenak dira, Ubideko Madalena auzunean eta Dimako Lamindaon ospatuten diranak. Ubiden, Madalena egunean, hilak 22, mezea egongo da ermitan, baina baita umeentzako jolasak, auzoen arteko olinpiadak, paella lehiaketak, sardina eta txokolate jana eta erromeria. Dimako Lamindaon ermitan mezea 12:00etan eta ostean trikitilariak eta barauskarria egongo dira.

Santiagoak, saninazioak eta sanadrianak

Santiago eguna garagarriaren 25a da eta jai honeek Lemoako Arrañon, Artean eta Dimako Santiago auzuneetan ospatuten dira. Arrañon mezea ermitan eta ostean barauskarria egongo da. Gauza bera Artean eta Diman Santiago ermitetan.

Hilaren azken eguna da San Inazio eguna eta Saninazioak Lemoako herriko jaiak izateaz ganera Zeberioiko Undurragan eta Dimako Arostegietan be ospatuten dira. Undurragan mezea egongo da eta horren os-

tean, txistulariak eta barauskarria. Arostegietan be mezea egongo da ermitan eta jai giroa inguruan.

Azkenik, abuztuaren 1ean, San Adrian eguna da eta Zeberioiko Argiñon ospatuko dabe.

Rally-a eta mendi urteerea San Kristobal auzuneko jaietan

Hiru egunetako jaiak prestatu dabe San Kristobal auzunekoak euren jaiak ospatuteko. Eskeintza originala auzune honetan, rally-a eta mendi martxea Intxaurbizkarraren eskutik eta garagardo tragu luzeenaren txapelketea tartean.

GARAGARRILAK 8, barikua

21:30ean, Auzo afaria. Ostean erromeria JOSE GARDOKIgaz.

GARAGARRILAK 9, zapatua

10:30ean, I. Arratiako Rally-a. Ur-

teerea ermitearen parean.

16:00etan, Arratiako Rally-a. Bigarren itzulia.

22:00etan, Kontzertuak. NIK KHAOS eta GOVERNORS.

I. Garagardo Tragu Luzeenaren Txapelketea.

GARAGARRILAK 10, domekea

08:00etan, San Kristobaleko VIII. Mendi Martxarako izen emotea. 5€.

08:30ean, urteerea.

13:00etan, Mezea Zeanuriko Abesbatzagaz.



Arrakasta handia izan dau aurreko urteetan mendi martxeak.

ARRATIA

Udan eskeintza handia umeentzat

Erredakzioa

Umeak eskoletan oporrak hartu orduko, erakundeak, alkarteak eta enpresa pribaduak umeak entreniduteko, ikasi dagien eta uda esperientziez betetzeko euren eskeintza egiten dabe. Udal gehienetan udaleku irekiak eskeintzen dabez umeak txangoak, kirol ekintza eta ekintza kulturalak egiteko gurasoak lan egin bitartean. Parte hartzean daben umeak, begiraleakaz, txangoak, tailerrak eta

kirola egiten dabe. Lemoakoak, esaterako, Donostiako akuariumera joango dira, sukaldaritzako tailerra egin dabe eta Gamarra eta Lemoako ugerlekuetan egingo dabe uger. Egunean egunean ekintza desbardinak.

Bagilaren 27an, hasi ziran udalak antolatutako lehenengo udaleku irekiak. Horrezaz ganera, herri askotan, liburutegiak eta ludotekak ordutegi zabalagoa izaten dabe eta batzuetan ugerlekuetaraino eroaten dabez begira-

leak liburuak eta jostailuak.

Hona hemen herriz herriko eskeintzea.

Arantzazu: Arantzazun ludotekak eta liburutegiak ordutegi aldaketak izango dabe udako egun luzeetara egokitzeko: 17:00etatik 19:00etara, hain zuzen be.

Artea: Hamabost eguneko txanda bitan izango dira udaleku irekiak 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Lehenengo bagilaren 27an hasi zan eta garagarrilaren

8ra arte izango da; hurrengo garagarriaren 11tik 22ra. Hamaika urtetik hamazazpi urte arteko gaztetxuak, barriz, Narbartera (Nafarroa) joateko aukerea eukiko dabe abuztuaren 1etik 8ra.

Ludotekea zarratuta egongo da udalekuak dagozan bitartean.

Bedia: Hilaren 5etik 18ra Bedian udalak antolatutako udaleku irekiak eta Txiki Txokoa izango dira.

Dima: Diman hilaren 11tik 22ra izango dira udaleku irekiak.

Igorre: Ludotekan zein eskoletan antolatu dauz udalak udaleku irekiak. Ludotekan bagilaren 27an hasi ziran eta garagarriaren

29ra arte luzatuko dira. Eskoletakoak, barriz, garagarriaren 18tik 29ra izango dira. Hiru urte arteko umeentzat be antolatu dabez udalekuak gurasoak. Honeek, hilaren 5etik 15era izango dira.

Hamabi eta hamasei urte bitartekoentzat, barriz, garagarriaren 18tik 22ra "Argazkiekaz endre-tan" izeneko tailerra egongo da.

Lemoa: Lemoan be, bagilaren 27tik hilaren 8ra dira udaleku irekiak. Eta hilaren 11tik 22ra, eguraldia ona bada, 11:00etatik 14:00etara ludotekea eta liburutegia ugerlekuetan.

Zeberio: Zeberion udalekuak bagilaren 27tik garagarriaren 8ra arte dira.

IGORRE

Autoeskoletan gidabaimena euskeraz

Erredakzioa

Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak, herriko autoeskolak alkarlanean, gidabaimena euskeraz aterateko kanpaina ipini dau martxan.

Urtean zehar B gidabaimena ateraten daben herritarren % 85 inguru 18-20 urte bitarteko gazteak dira. "Gurean adin horretako gazteak D ereduaren egi-ten dabez ikasketak eta eskolaz kanpoko jardueretan, kirol arloan eta antzeko jardueretan euskerazko eskaintza jasoten dabe. Halanda be, gidabaimena aterateko orduan, askok oraindino be gaztelaniaz egiten dabe azterketak. Hori holan izanda, bultzada emon gura izan deutso Euskera Zerbitzuak gidabaimena euskeraz aterateko aukerari" azaldu deutso BEGITURI Amaia Arauzo Igorreko euskera teknikariak. Horretarako, Igorreko Udaleko laguntzeagaz hainbat material banandu da herriko autoeskola bietan, ikasleak prestakuntza euskeraz egiteko aukera euki dagien.

Aitatutakoaz gain, azterketa teorikoa euskeraz egiten daben guztiak biaje baten zozketan parte hartuko dabe. Europan zehar ibilteko lau personentzako interrail txartela izango da saria. Zozketea 2011ko abenduan egingo da abendura bitartean azterketa teorikoa euskeraz egiten dabenen artean.

BFAren ekimena

Gidabaimena euskeraz aterateko aukerea emoten dauan kanpaina hau, Bizkaiko beste hainbat herritan be abian da igaztik. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako Euskera Zerbitzuen bilgune dan Alkarbideren bitartez lortu dabez Igorren kanpaina honetarako materialak eta sariak.



Kanpainearen kartela.

IGORRE

Igorreko Euskera Planak lip dub bat grabauko dau urri lehenengoaren 24an

Erredakzioa

Bideokamarea, jentea eta kantua, hiru osagai horreek behar dira lip dub bat grabetako. Interneten zabaldu dan fenomeno barria da lip dub, kantu batez egiten dan koreografia kolektiboa. Ingelesean, ezpain bikoizketa esan gura dau. Euskerearen egunean eta euskera sustatzeko grabauko dabe lip dub-a Igorren.

Ibilbide bat zehaztu eta herritarrek antzezle bihurtzen dira, abestiaren hitzak euzpainez (lip) jarraitu eta jantzaz antzezten daben bitartean. Baldintza bakarria bete behar dau mota horretako bideoak: kamara bakar batez

eten barik grabau behar da, hau da, sekuentzia bakar baten. Holan, aurretik antzezpina ondo planifiketea ezinbestekoa da, grabau ostean ezin dalako bideoa editatu.


Igorren urri lehenengoaren 24an grabauko dabe

Daborduko herriko kultur eta kirol alkarteak hartu-emonetan ipini dirala dino Amaia Arauzok Igorreko Udaleko euskera teknikariak. Izan be, "parte hartzea garrantzi handikoa da, inportanteena ez dalako kanta baten playback-a ondo egitea, lan talde batek, giro onean, koreografia oso bat egitea baino".

Dana dala, alkarteetan ez dagozan herritarrek be konbidau gura

dabez eta horretarako, herriko jaietatik hasita dagoz komunikazio kanpaina egiten "argi dago euskereak biziberritzen jarraituteko erreminta barriak behar dituela eta euskera eguna egun ezin hobea da jentek hizkuntzeagaz olgau, entretenidu eta gozatzeko".

Euskera Planeko kantua erabiliko da eta entseguetarako egunak, zein antolaketearen ganeko zehaztapenak data hurreratu ahala emongo dabezala azaldu dau Amaia Arauzok.



Zuztertxuk be parte hartuko dau lip dub-ean.

ARTEA

Industrialdeak energia alternatiboen alde egingo dau

Erredakzioa

Eusko Jaurlaritzak jakitera emon ebanaren arabera, eguzki energia aprobetxetako planta fotovoltaiko bi ipiniko ditue Arteako Industrialdean. Horretarako 1,2 milioe euroko inbersinoa egingo dabe eta plakok 200 kilowatt sortuko ditue. Ganera, industrialdean haretzak, gaztainondoak eta beste bertako zugatzak landatuko ditue. Babestutako espezien habitata mantentzeko proiektu bat be ipini dabe martxan.

30 enpresa eta 525 lanpostu

Jaurlaritzaren arabera, Arteako Bidosola Industrialdean, 2008tik, industrialdearen erreguntza beharrak amaitu zituenetik, 525 lanpostu sortu dituen 30 enpresa kokatu dira bertan, okupazioa % 85era helduz.

Sprilur eta Arratiako Industrialdea soziedadek kudeatzen dabez Bidosola Industrialdeako pabilioiak.



Arteako Industrialdea.

ARRATIA

Ugerlekuak zabalik

Erredakzioa

Bainu denporaldia bagilaren 11tik urri lehenengoaren 11ra luzatuten da gurean. Izan be, epe horretan egongo dira zabalik Areatza eta Lemoako ugerlekuak.

Igorren aurten kiroldegia lehenengo zabalduko da abuztuan, 1etik 7ra eta 22tik 31ra. Beraz, ugerlekuak zabalik egongo da egun horreetan.

Ordutegia

Areatza: 11:00etatik 20:00etara.

Lemoa: 11:30etik 20:00etara.

Igorre: 09:00etatik 17:00etara.



TXEMA URIARTE

"Ondino liburu piloa falta da idazteko, pelikula asko egiteko"

Bagilaren 30ean, Euskal Memoria Fundazioak aurkezpena egin eban Igorreko Kultur Etxean. Txema Uriarte Fundaziozko historiagileak geure memoria historikoaren berreraikuntzaren ganean egin eban berba. Eta "errepublikatik hona edo guda ostetik hona, erresistentzia edo errepresinoia jasan daben Arratiako personai" omenalditua egin eutseen. Gaiaren inguruan egin dau berba luze Uriartek BEGITUGAZ.



Txema Uriarte, argazkian eskoietara.

Erredakzioa

Arratiak gordetzen dau memoria historikoa?

Arratian badago hainbat gertakizun: Arratia Konpainia guda garaian, barbarako. Leku euskalduna danez eta bere nortasunagaitik, denporan zehar hainbat gertakizun gertatu dira hemen. Dana dala, gitxitan akordetan gara urte horreetan gertatutakoaz. Pentsetan dogu intergarria dala persona honeei, kolektibo moduan, adierazotea egindako hori sano inportantea izan dala. Ze persona horreek

holango gauzak eta holango trantzeak pasau ezean, gaurko historia, gaurko momentua oso desbardina izango litzatekealako. Historia ez da historiagile batek edo unibersidadeko batek idazten dauan liburua. Gure ustetan, eta horregaitik, 30eko ekitaldia oso inportantea izan da. Baita, herri mailan eta jentegaz historia berreskuratzekeo proiektua eta proiektu hori berreskuratzen ari dan jentea eta taldeak aurkeztea. **Zeintzuk zabize proiektu horretan?**

Ahaztuak eta Euskal Memoria Fundazioa. Ahaztuak alkarteak

hainbat lan eta proiektu egin ditu Arratian. Euskal Memoria Fundazioa, Dokumentazio Zentru bat izateko proiektuagaz jaiotako: 1931tik honako testigantzak jaso eta testigantza eta material horreen bidez dokumentetako historia zelakoa dan jente xumearen ikuspuntutik.

Jentea alkarrizketatzen gabiz, materiala jasoten eta berau digitalizetan. Bigarren mailako iturriak erabilten doguz, beraz. Gero horreek argazkiok beste bateri memoria freskatzeko balio dabe. Ze talde bat agertzen danean, oso argi ikusten da errepresi-

noaren neurria norainokoa izan zan. Argazkia ikustean jentea hasten da "honegaz hau gertatu zan eta besteari bestea egin eutsien" esaten.

Bizi izandakoa abiapuntua dalarik jasoten da historia ezta?

Bai. Bizi izandako errepresinoia ez bakarrik Euskal Herrian. Ez. Franco nire bizitzan, Franco nire auzoan, Franco nire herrian, Franco nire eskolan, Franco nire aguazila, Franco udaletxean, Franco eleizan ze Franco presente egon zan leku guztietan. Eta hori izan zan bere lorpena, hori sistematizau egin zan. Horrek sortutako bildurra izan zan historia zati handi baten eragile nagusia. Transizino kaskarra egin izanaren erantzule da bildur hori edo gaur eguneko gobernuaren ustelkeriaren arrazoiak bat.

Zein helburu eukan Igorreko ekitaldiak?

Printzipioz jenteari laguntza eskatu deusagu, alde batetik proiektua bera sostengatzeko eta gero dokumentazio hori jasoteko. Guk badakigu material hori jentearen buruan dagoana, baina hori sozializetea gura dogu.

Gure idea da leku bakotxean talde txikiak sortzean hastea. Soziologia, antropologia, historia eta abar ikasi dabenak laguntza handia emon daikie. Adibidez, horreek badakie alkarrizketak eginen.

Ganera, bakotzak bere karre-

"Tokikotasunetik danon historiara pasau behar da"

"Francok sortutako bildurra izan zan historia zati handi baten eragile nagusia"

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilegoak, Hezkuntza zikloak

Zugaitik BEGITuten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

ellaURI HOTEL
Natura ostetia

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

ran egindako lanakaz, izugarritzko materiala egon daiteke. Hainbat kasutan gauzak eginda dagoz. Iloba batek amamari egin eutsan alkarizketea unibersidade garaian, barbarako. Hortik tiratu behar dogu.

Zein da orain arte egin duzuen lana?

Orain Euskal Memorian lau persona gagoz. Igazko urtea emon genduan liburu bat egiten: 1960tik hona izandako errepre-sinoaren ganekoa. 22.000 izen bildu doguz eta eskatu deutsegu kontetako zelakoa izan zan ha-reen esperientzia. Hori da orain arte egindako ibilbidea.

Orain hasi gara egiten erre-publikatik 1960ra arte. 1960an sortzean da gaur ezagutzen do-gun mundua. PNVk hartzean dau

Dokumentazio Zentruaren emoitza modu bitan agertzen dira. Webgunean ipintea da modu bat. Guk jasoten dogun materiala joango gara web-gunean sartzean mundu guztiaren eskura egon daitezen.

Baina gure babesle asko jente edadetua da, ez daukana ohitu-rarik interneten ibilteko. Horre-gaitik, urtero egingo dogu liburu bat, urteroko lanaren laburpen moduan. Eta aldizkari bi.

Zergaitik jaio zan Euskal Me-moria Fundazioa?

Hau orain dala urte bi eta erdi-hasi zan. Momentu baten ikusi genduan nahikotxu jente egoala holako lanetan: Gernika gogo-raturaz, Gasteizko martxoaren 3koak, Durangokoak, Iruñeakoak, Pasaiaikoak... hainbat talde sor-



Burgoseko prozesua gure memoria kolektiboan dago.

indarra barriro, CCOO... baina hor tartean geratzen dira hogeita piku urte zeharo ilunak. Urte horetan jenteak agiriak behar zituan herri batetik bestera joateko, himno nazionala kantetan zan eskolara sartzean eta bukatzean, leku guz-tietan egozan hildako frankistai monumentuak eta mundu guztiak agurra egin behar eban ondotik pasakeran, jente askori ipini eutsien isuna Jon deitzeagaitik edo euske-raz berba egiteagaitik...

Dinozu jakintza hori soziali-zau gura dozuela, zelan?

tu dira baktza bere lekukoa jasoten. Eta tokian tokikotasun horretatik pasau behar da beste kontzeptu batera: danon historia egitera. Historia hori oso anitza izan behar da. Batek edo bik kontetan dabenean emoten dau Historiaren idea monoliti-koa, prefektua. Eta holangorik ez dago. Horregaitik inperfekzio horretan, inportantea da jakitea baita ondoko herrian zer gertatu zan be. Ondino pilo bat liburu falta da idazteko, pelikula pilo bat egiteko...

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com

Tel. 94 631 60 06 • email: info@ararotz.com

ARA OTZ

Landetean O Jabetzen!

Barrio Ugareana 2 et. - ADAR Dena - Tolosa www.ararotz.com

OPEL

ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estuñofos, 15
48330 LEVADA (Bizkaia)
Telfa: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

JANDONIZ

ragusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

HERRIKO BENTA

HOSTAL

HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz

EUSKARAZKO HEDABIDE EZ PUBLIKOAK

Ametzola Landetxea

Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa • Fiskala • Lanekoa • Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tinoa. 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

expert ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

SEGA

Bizkaiko lasto jasotze eta sega txapelketak

Erredakzioa

Hileon dira Bizkaiko lasto jasotze eta sega txapelketak. Txapelaren bat edo beste lortzeako aukerak badaukiez Arratiako kirolariak.

Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketea garagarren 16an, arrastiko seiretan izango da Mar-kinako plazan. Txapela eskuratze-ko lehiatuko da hainbeste aldiz txapeldun izandako Jose Martin Bustintza "Tubi" dimoztarra. Dana dala, kirolaria ez da bere momenturik onenean sentidu-

ten. "Eretxia daukat inoiz baino bajuago nabilana, berandu hasi nintzan entrenetan eta naz sasoi betean sentiduten" aitortu eutsan BEGITURI Tubik. Hilaren 16ra arte, ez dago ezer ebatzita.

Sega txapelketan hiru arratiar

Bizkaiko Sega Txapelketea Santiago egunean izango da, hilak 25, Basagurenen (Abadiño) arrastiko 18:00etan. Bertan hiru arratiar egongo dira Bizkaiko txapela lortzeako lehiari Jon Intxaurbe, Miguel Angel Goioaga eta Jaime Atxa.



Jaime Atxa igazko txapelduna.

SEGA

Irati Astondoa Euskal Herriko sega txapelduna



Irati Astondoa.

Erredakzioa

Irati Astondoa zeanuriztarrak irabazi eban Baliarrainen (Gipuzkoa) bagilaren 18an jokatutako Euskal Herriko Sega Txapelketea 23 urte artekoen kategorian. Euskal Herriko Txapelketak urte birik behin izaten dan Europako Sega Txapelketarako sailkatzeko balio dau.

Liga moduan jokatuten da txapelketa hau eta Astondoa ira-

bazteko konfiantzeagaz joan zan. Izan be, aurretiko kanporaketa biak irabazi zituan zeanuriztarrak. Txapelketa honetako lehenengo bostak andrazkoetan eta hamarrek gizonezkoetan sailkatzen dira Europako Txapelketarako. Txapelketea Eslovenian izango da abuztuan eta zita honetan arratiar bi izango dira: Astondoa aita-alabak. Gizonezkoetan bosgarren izan zan Pabi Astondoa, Irati Astondoren aita.

TRINKETEA

Ekhi Ziarrusta azpitzapeldun

Erredakzioa

Bagilaren 18an Bilboko Miribillako trinketean jokatu ziran Trinketeko Euskal Ligako finalak. Dimako Txumuluxueta alkarteko Ekhi Ziarrustak gazte mailan banakakoa jokatu eban Mungiako Danak Bat taldeko Prietoren kontra. Dimoztarrak 35-21 galdu eban partidua.



Ekhi Ziarrusta.

MENDIA

Alex Txikon Gasherbrum I-ean da

Erredakzioa

Pakistaneraino furgonetaz joan eta bidean aizkora erakustaldiak egin ostean, mendiarri ekin eutsan bagilaren 25ean Lemoakoak, neguan saiatu zan taldeagaz -Louis Rousseau eta Gerfried Gösch- eta beste hiru mendizalegaz (Juanra Madariaga, Tamayo eta Gunther, Gerfried- den lagunagaz).

Lehenengo kanpalekua 5.900 metro tara ipini eben hurrengo egunean. Hor gau batzuk pasau ditue aklimatazinoa egiteko, euren helburuak, Gasherbrum I-ek, 8.068 m. ditu eta.

Neguan bizi izandakoaren aldean "oso bestelakoa" dala dino Txikonek bere blogean. Oraingoan, egunez bero be egiten dau ala dino Txikonek, nahiz eta dana edurtuta agertzen dan argazkietan. Izan be, kanpalekua glaziar baten dago eta gauren baten be edurra egin dau.

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktuak
Lehendakari Agneta, 31 bis. - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 62 34 - Fax: 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industriaidea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

ekin s.l.
LABORATORIOS
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRU ETA BASOKO BIDEAK
FABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Ennea Garrarioak
Mugikorra 629 465 335
Irantze ezte, 12 LEZIOA
Tfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONJUNTAN
ONDARIN BEGIZAZEN
ASIGURUTAN
Sabino Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 01 - 48140 IGORRE

ESKALADEA

Itziar Zabala Espainiako txapelduna

Barrero be igo da Itziar Zabala podiumeko mailarik altuenera Espainiako Kirol Eskalada Txapelketan.

Erredakzioa

Txapelketea Gijonen jokatu zan bagilaren 18 eta 19an eta dimoztarrak irabazi eban. Holan, Espainia mailako txapelketa guztiak irabazi ditu Itziar Zabalak 18 urte artekoen kategorian.

Itziar Zabalak "sasoian eta irabazteko gogoz" sentiduten zala esan eban aldizkari honetara egindako adierazpenetan eta espero zan moduan txapelketa hau

be irabazi dau. "Urteko helburuak ondo bete dodaz, Espainia mailako txapelketa guztiak irabazi dodaz eta oso pozik nago" esan eutsan BEGITURI eskalatzaileak.

Podiumean

Hilabete eskas baten bitan igo da Itziar Zabala Espainiako eskaladako podiumeko lehenengo postura. Izan be, maiatzaren 29an Espainiako Kopa lortu eban dimoztarrak.



Itziar Zabala bulderrean eskaletan.

AUTOAK

Arratiako I. Rallya San Kristobal bezperan

Erredakzioa

Auto klasikoen erregulartasun I. Rallya antolatu dau RPMVk garagarriaren 9rako. Igorreko futbol zelaiaren ondoko aparkalekuan izango dira egiaztapen kontrolak 08:30etik aurrera eta urteera 10:30 inguruan izango da. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Kantabriako partaideak espero badabez be antolatzaileak "Arratiako auto batzuk be hartuko dabe parte".

San Kristobal ermitatik bitan pasauko dira

Igorren hasiko da beraz, Arratiako

I. Rally hau eta Zeanurin amaituko da 21:00ak aldean. San Kristobal ermitatik bitan pasauko da rallya: goizean eta arrastian. "Dima, Ubide, Artea, Zeberio, Lemoa, Arantzazu, Areatza eta Arratia ingu-

ruko Orozko, Amorebieta-Etxano, Otxandio eta Legutiotik pasauko dira auto klasikoak proba osotuten daben 300 km.ak egiteko" azaldu deutso BEGITURI Juan Domingo Goti antolatzaileak.



Rallya hilaren 9an izango da.

NON?



**arratiako
instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Tutuek kontrolatzeko sarritan eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 07
Tel./Fax 94 675 62 76
819 734 616
48140 Igorre Bizkaia

Igorreko jaietan
bagilaren 19an egin
zan San Antonio
jaietako zozketako
zenbaki sariduna:

390

Irabazlea:
Deiene Gurtubai

Laguntzailea:
Ecuador Bidaia

Igorreko Sanantonioetako
Jai Batzordea



KONTZERTUA

Hurrekoa hurrean eta Umeen zentzune etxean entzune aurkeztu eben Igorren

Irati Urien

Bagilaren 24an Igorreko Kultur Etxean, iluntzeko bederatzietan izan zan hitzordura jente ugari bildu zan. Bi ziran arrazoiak. Batetik, *Umeen zentzune etxean entzune* Arratiako eskoletako gurasoak egindako diskoa; bestetik, AK-37ren hirugarren lana, *Hurrekoa Hurrean* aurkeztutea. Aurkezle lanetan Mateo Pagazaurtundua institutuko irakaslea ibili zan. Oihana Aihartza eta Ane Lekue institutuko ikasleak barriz abesti bakotxaren istorioa azaldu eben. Gurasoak hasi ziran lehenengo kantuan, abestioak eskolara aurkeztu ziralarik. Hamar kantu inguru aurkeztu ebezan Lemoa, Igorre, Dima, Artea, Areatza eta Zeanuriko eskoletako gurasoak. Honeen ostean AK-37koak etorri ziran, sei abestigaz. Hasierako nerbioak ahaztuta eta jada lasaiago abeslari, musikari eta ikusleak barriketan egon ziran aretoaren kanpoaldean. CDak salgai dagoz ohiko lekuetan.



Arteako eskolako gurasoak.



Arratia Institutuko gurasoak.

KONTZERTUA

Jingo de Lunch Zeberion hilaren 15ean

Kontzertuko kartela.

Iban Gortazar

Kortatu Alemanian jirabiran ebiten urte beretsuetan sortu zan Jingo de Lunch, 1987ko Berlin iskanbilatsuan. Eta iskanbila horren ondorioz punk-a ikur hartuta *Perpetuum mobile* diskoa atera eben, eta eurek dinoen moduan, "errepidea astintzen" hasi ziran. Ibilbide luze horretan desegin eta berregin egin dira. Azken urteetan taldea eratu eta Zeberion izango doguz protesta abestiak haizeetaratz. Garagarriaren 15ean 20:00etan, Sermonds, Esteka eta Orkrestagaz batera izango da kontzertua Zeberio Zubialdeko plazan.

"Saioa Zubiaurre zeberioztarren atxiloketeak eta kalera ateratzeko fiantzeak sortutako gastuetan lagundu eta Saioari berari laguntza morala emetoko antolatutako kontzertua da. Zeberio Udalak eta Saioaren Lagunak antolatuta" dinoe antolatzailak.

Sarrerak Zeberio Herriko Tabernan eta Igorreko Kukuman dagoz salgai. Aurretik erosi ezker 7 eurotan eta bertan 10 eurotan.

AURRESKU TXAPELKETEA

Igorreko X. Aurresku txapelketea hilaren 2an

Zapatuan, garagarriaren 2an, izango da Motxogan Kultur Elkarteak Igorreko Udalaren laguntzeagaz antolatuten dauan Igorreko X. Aurresku txapelketea.

Erredakzioa

Arrastiko seiretan Lasarte Aretoan izango da eta ez da sarrerarik ordaindu beharko.

Parte hartzaile kopurua zehaztuta ez dagoan arren Sestao, Bilbo, Algorta eta Igorreko aurrekulariak emon dabe izena besteak

beste. Partaideen artean Igorreko Julen Bilbao da arratiar bakarra, igazko irabazlea. Arkaitz Pascuas, sestaoarra, igazko Euskal Herriko aurresku txapeliduna be izango da Igorren. Nesken partaidetza ez da gehitu eta igazko moduan 3 neskak hartuko dabe parte: bizkaitar bik eta arabar batek.



Aurresku txapelketako kartela.

KONTZERTUA

Borja Estankonaren kontzertua Igorren hilaren 8an

Erredakzioa

Musikari arteztarrak atera barri dauan *Estankona* diskoa aurkeztuko dau, garagarriaren 8an, Igorreko Kultur Etxean. Kontzertuan, diskoa grabau eban talde bera

izango da eszenategian: Borja bera abesten eta gitarreagaz, Itxaso Etxebeste bajuagaz eta Jimmy Arrabit baterian.

Kontzertua 21:30ean hasiko da. Sarrera: 5 €; 3,75 Kultur Etxeko bazkideentzat.



Jimmy Arrabit, Borja Estankona eta Itxaso Etxebeste.

EUSKAL JAIA

Herritarrak berbiztu ebezan sasoi baten argi-ilunak

Erredakzioa

Sano lan polita egin eben Institutuko gazteak eta Areatzako jentek *Inkisizinoa* antzezten Areatzako IV. Euskal Jaian. Sanca alkartekoak egin daben ikerketa eta erakusketeari esker, Areatzako andrak antxinako buru apaingarri deigarri hareekaz gure memoria historikoan dagozan gertaera larriak

berbiztu ebezan. Eta sasoi hare-tako jantziak eta buru apaingarriak soinean, bildurra eta haserrea adierazo eben ondo baino hobeto sorgin akusazinopean kondena-tako herritarren papera jokatu ebenak. Mateo Pagazaurtundua irakasleak be Pierre Lancrais zoragarri bat egin ebala esan deutso BEGITURI jaietan egondako jentek. "Ume txikerrak negar eta dana

egin eben, neska eta andra ha-reen sufrimentua ikustean" dinoe jaietan izandako lekuko batzuek.

Toti Martinez de Lezeak bez-peran emondako berbaldiak eta Gorka Menendezek bedarren ganean emondako informazioak be interes handia piztu eben. Hori dala eta, antolatzaileak "sano arrakastatsutzat" jo dabe Areatzako IV. Euskal Jaia.



Idoia Atxa billaroztarra *Inkisizinoa* antzezlanean.

LARRE ALDAKETEAK

Beroak bide guztia egitea eragotzi eban



Enrike Etxebarria artaldeagaz.

Argazkia: DEIA.

Erredakzioa

Igazko moduan uda hasita egin dabe larre aldaketea Enrike Etxebarriaren ardiak eta bagilaren 26an egin eban beroa dala eta, ez ziran heldu aurreikusita egoan moduan Enrike Etxebarriak Lekandan daukan txabolaraino. Plana zan hara heldutakoan hamaiketako egitea, baina egiten eban 30 °C inguruak zirala eta,

ardiak beherago laga behar izan zituen.

Ipizki taldeak antolatuta artzaintza mundua ezagutzera etorritakoak urtero laguntzen deusie Etxebarriari bere baseritik Lekandarako bidean. Aurten, 25 lagun inguru izan ziran bideari ekitera animau ziranak.

Etxebarria bere txabolan geldituko da garagarilaren 31ra arte gaztaiak egiten

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa **E-posta**

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:
 35€ 55€ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
 Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48942 Artea

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Ellexalde 4
Telefonia 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

GALANTA

Bametik jantzeko
Zugandik saro hortak

merkealdia

Lehendakari Agirre 23, Igorre
Telefonia: 94 631 90 08

bbk

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zeliakoentzat elkagaiak
estelizena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56

L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

belagorri

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

AGENDEA

**GARAGARRILAK 1
ARANTZAZU**

Sanpedroak. Egitaraua 6. orrialdean.

DIMA

Sanpedroak. Egitaraua 6. orrialdean.

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" euskal preso eta iheslarien aldeko konzentrazioa.

**GARAGARRILAK 2
AREATZA**

08:00etan, Parketxetik urteera Ubide-Dulau-Aburi-Saldropo.

IGORRE

18:00etan Igorreko X. Aurreku Txapelketa, Motxogonek antolatuta Kultur Etxean.

ZEANURI

Sanpedroak Undurragan. 12:00etan, Tortilla txapelketa. 16:00etan, Mus txapelketa. 19:30ean, Herri kirolen erakustaldi herrikoia. Ostean pamiñadea jantzan egiteko musikeagaz eta argazki erakusketa batez animata.

**GARAGARRILAK 3
ARANTZAZU**

Santo Tomas, mezea ermitan eta askaria.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, hilaren 10era arte, Andorrara itzulia. Pirinioak.

ZEANURI

Sanpedroak Undurragan. 12:00etan, Meza nagusia eta barauskarria. 17:30ean, Mus txapelketearen finala Txato txokoan. 19:00etan, txokolatea eta jaien amaiera.

**GARAGARRILAK 8
IGORRE**21:30ean, Borja Estankonaren *Estantkona* diskoaren aurkezpena. Lasarte Aretoan.**GARAGARRILAK 9
IGORRE**

10:30ean, Arratiako I. Rallya.

**GARAGARRILAK 10
IGORRE**

Sankristobalak San Kristobal auzunean (ikus egitaraua 6. orrialdean).

**Su Ta Gar Lemoako jaietan**

Hilaren 30ean, gaueko 23:30ean hasita, doinu metaleroz beteko jakuz Lemoako inguruak, aspaldiko ezagunakaz. Izan be makinatxu bat bider etorri izan dira gurera Gipuzkoatik Su Ta Gar taldeko lagunak. Behin euren ibilbideko hogeigarren urteurrena igarota, oindino be indartsu ekiten deusee jada himno bihurtu diran abestiai: Jo ta ke, Mari, Itxaropena... Azkenaldian jasandako zentsura eta erasoaldiak ahaztu eta sendo ekingo dabe garagarle amaieran arratiar guztiontzat.

UBIDE

Amexier Mendi Taldeak antolatuta hondartzara urteera. Laidara piraguetan ibilteko.

**GARAGARRILAK 12
IGORRE**

18:30ean Udal Aretoan plenoa.

**GARAGARRILAK 15
ZEBERIO**

20:00etan Kontzertua Jingo de Lunch.

**GARAGARRILAK 18
DIMA**

Santamañe jaiak Bargondian.

ZEBERIO

San Segismundo jaiak Upon.

**GARAGARRILAK 22
DIMA**

Madalenak Lamindaon.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta Pirinioetara urteera hilaren 25a arte, Besiberri Sur (3030 m.) eta Punta Alta (3014 m.).

UBIDE

Madalenak. Umeentzako jolasak eta auzoen arteko olimpiadak; paella lehiaketa, sardina eta txokolate jana eta gauean erromeria.

**GARAGARRILAK 25
ARTEA, DIMA ETA LEMOA**

Santiagoak.

**GARAGARRILAK 26
IGORRE**

18:30ean Udal Aretoan plenoa.

**GARAGARRILAK 27
LEMOA**

San Inazio jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**GARAGARRILAK 29
LEMOA**

19:30ean, Azken barikua, euskal preso eta iheslarien aldeko konzentrazioa.

**GARAGARRILAK 31
DIMA**

Saninazioak Arostegeta auzoan.

UBIDE

Amexierrek antolatuta, umeentzako urteera. Gorbeia.

ZEBERIO

Saninazioak Undurruga auzoan.

**ABUZTUAK 1
ZEBERIO**

San Adrian jaiak Argriaon.

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU
SALTZEAN DOT**

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonoa 635 007 632.

SALTZEAN DOT

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gibi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

ETXEA SALGAIAreatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.**TXAKURRAK SALGAI**

Maiatzean jaiotako 3 txakur kume salgai. Arrazea: Alemaniako artzain-txakur mestizoa. Ama pedigriduna eta aita mestizoa. Deitu 636 132 741 telefonora.

**LAN ESKEINTZA
ESTETIZISTEA BEHAR DA**

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

**DANERIK
APARTAMENTUA ALOKAIRUAN**

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Igorreko Udalak emondako Fasioren Mendea CD-DVD-Liburua.

Alex Agirre (Areatza)
Amaia Espinosa (Artea)



2

Baga-bigak emondako Borja Estankonaren CD bana.


Maitane Uriarte (Igorre)
Tatiana Esteban (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Orokorrean, hegaz egiteko egokitua dagoan animalia.
2.- Urteko bigarren hilabetearen izena. 3.- Bokala. Gehiegi. Uranioa. 4.- Nora atzizkia. Letra. India. 5.- Aztertu. 6.- Suagaz batera. Bokala. Txarra ez dana. 7.- Bigarren bokala. Hareazko basamortu. Bokala. 8.- Gizonezkoen izena. 9.-Asaba.

GOITIK BEHERA

1.- Letra mutua. Erakundea.
2.- Ezetza. Eskubara, nekazariaren lanabes. Euskera zaharrean, txakur.
3.- Kosmetikan erabiltzen da. Bokala. Euskadi Buru Batzar. 4.- Ausardia.
5.- Galdetzaila. Bokala. Materiaren oinarriko hiru egoeratako bat.
6.- Titanioa. Uretan hil. Begiratu. 7.- Ilun-unada. Bokala.



Topau lehenagoko zazpi pisu edo diru-banakoak.

A	S	E	T	A	R	A	K	O	L
D	A	T	X	L	I	B	R	A	O
E	K	I	A	D	T	A	O	G	M
G	O	I	K	L	A	D	U	A	B
I	S	T	U	R	E	E	N	Z	O
F	A	R	R	A	I	N	E	L	A
U	Z	E	H	I	P	A	T	D	E
Z	E	R	A	K	U	R	A	U	S
I	G	A	N	A	R	I	T	K	A
X	I	A	D	E	J	O	T	A	B
P	E	S	I	T	N	A	B	T	O
E	K	I	A	T	U	R	N	A	D
H	O	A	Z	E	J	R	E	G	O
I	L	A	L	A	E	R	R	E	A
Z	O	R	T	U	K	O	P	U	R

AKMIKO

Zorrozkiilo



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Ordie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 7.
48140 Igorte (Bizkaia) Tlfnoa: 94 632 64 78

Umeen moda 0-20 urte
• Bobbi • Ray • Aranda
• Anr • Gutsuñer • Arandiga
• Gaudole • Lela • Massana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmusak 41, A, BTE, B
Lehendakari Agirre 31
Tlfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORTE (Bizkaia)
garantxe@eskola.net

ARRATIA AUTOESKOLA
Karnela eskolaz zein erdaraz
Gabe, 10 - 48140 Igorte (Bizkaia)
telefonoa 94 631 54 31, Faxo 94 673 70 83
e-posta: urakua@eskola.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN ★ SOLARES
Polig.Mendieta, n.º 3. 48530 LEMCIA, Euzkadi
Tel. 609 482 839 fax 609 296 727

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
ARRATIAKO TALDEA
Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu
Igorre

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorte
94 631 52 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Gabe, 29 Telefonoa: 94 673 40 14 IGORRE BIZKAI

BATZAR EGUNAK:
epautesak 20etatik 22etara
Udaltzarke arkapetan
EPA-ko lokalak
KONTAKTATZENO TELEFONOA:
690 139 044

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante Montero
Eguneko menua
euskal sukaldaritzaz,
sukaldaritzaz bolibiarra
eta brasildarra
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

GUADALUPE PRIETO

"Zohikatza (lupetz baltza) adimenduna da"

Narruazala zainduteko, turbearen alde egiten dau

Areatzan bizi dan Guadalupe Prieto Maza botikariak.

Eta lupetz baltz honegaz, maskarillak egin eta kremak saltzean ditu.

Holan definiduten dau turba edo zohikatza hiztegiak:

"zingira landaredi hila, ur geldi oxigenogabekoetan bakterioen deskonposizioa pairatzen duena".

Narruazaleko gaixotasun guztiak kontroletako be balio dauala dino Prietok.

Erredakzinoa

Zer da zohikatza edo turba?

Lupetz baltz bat da. Alga, landare eta iratzeen miloeka urteen zeharreko deskonposiziotik sortzean dana. Turbearen jatorrizko mendikatearen arabera, landaredia desbardina izango da eta turbearen ezaugarriak be desbardinak izango dira. Hau Kantabriakoa da eta azido lumiko eta flumikoetan aberatsa da. Azido honeek sano onak dira narruazalarentzat eta sistema immunologikoarentzat.

Zer egiten deusie azidook narruazalari? Hidratau?

Azalaren arabera. Ez dago turba bat narruazal koipetsuarentzat eta beste bat azal sikuarentzat. Zohikatza adimenduna da eta ikutzen dauan narruaren arabera funtzionetan dau modu baten ala bestean, oreka lortzeako.

Narrua koipetsua bada, koipea kentzean dau; sikua bada, hidratan dau; gorri egon ezker, gorritasuna kendu... Honen eragina ez da bakarrik azalean, barrurago be sartzean da.

Tratamentua oso erreza da, segun zelan daukazu azala gehiagotan ala gitxiagotan emon beharko dozu. Erraza bai, baina apur bat deserosoa be bada.

Deserosoa?

Turbea erabilteko modurik eraginkorrena, bainuontzia ur epeleze bete, turba eskukada bat ipini eta bertan ordu erdi egotea da. Azaleko gaixotasun bat euki ezean, larregizat jotzen dau jentek ordu erdiko bainua hartzea. Baina narruan azkurea euki edo narruak hatsa bota ezker eta lehenengo bainua hartuta onera egin dauala ikusten dabeneztat ez da deserosoa izaten.

Baina, beste modu askotan

"Turbea erabilteko modurik eraginkorrena ur epeletan bota eta bainua hartzea da"

"Kantabriako turbea ona da narruazala eta sistema immunologikoarentzat"



erabili daiteke: arpegian edo ulean turba maskarilla bat egin, jabo moduan erabili edo kosmetiko tradizionalak legez. Linea kosmetiko bat daukagu.

Eta krema honek edonork erabili ahal ditu, edade guztietako jentek. Nire umeak, esaterako, erabilten ditue.

Zein gaixotasun sendatzeko da aproposa zohikatza? Ez da baina nahikoa izango, turbeagaz igurtzea.

Narruazalaren gaixotasun askok elikadureagaz daukie zerikusia. Dermatitis atopikoa daukan per-

sona batek hesteak absorzinoa txarto egiten dabelako izaten da. Modu egokian jan eta kanpotik turbea igurtzi ezker, dermatitis atopikoa guztiz kontroletan da. Gauza bardina psoriasisagaz.

Kortikoidearen orde, erabili daiteke turbea. Turbea guztiz naturala da eta ez dauka kortikoideak euki ahal dituan albo ondoriorik.

Uda da akaso, sasoirik txarre-na narruazalarentzat, ezta?

Bai, eguzkiak kalte handia egin deikio narruazalari. Erre ezker, turbea da onena.



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
· Garraio zerbitzua.